# KONPLIZITATERIK EZ, ISRAELI BOIKOTA!

## Carrefour-i Boikota

KANPAINA BDZ EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIKO
**BDZ** NODOA
**ISRAELI BOIKOT, DESINBERTSIOAK ETA ZIGORRAK**

**Informazio gehiago: labur.eus/bdz**

# IKUSPEGI OROKORRA

2022ko martxoan, Carrefour talde frantziarrak frankizia elkarte bat iragarri zuen Electra Consumer Products-ekin (ECP) eta Yenot Bitan filial minoristarekin, biak ala biak aktiboak Israelen legez kanpoko kokalekuen proiektuan. Carrefour frantziar txikizkaria da, eta mundu osoan 3.400 denda baino gehiago ditu. Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2024ko uztailean ebatzi zuen okupazio militar guztia eta Israelek Gazako eta Zisjordaniako Zerrendan duen presentzia bera –Jerusalem ekialdea barne–, baita okupatutako lurralde palestinarrean kokaguneak ezartzeko proiektua ere, legez kanpokoa dela eta debekatuta dagoela edozein laguntza edo aitorpen ematea.

ECP enpresa israeldarra da, burtsan kotizatzen du eta Elco Ltd. holdinga du jabe nagusia. ECPk Yenot Bitan txikizkariaren partaidetza nagusia eskuratu zuen 2021ean. Yenot Bitan enpresak dozenaka denda ditu apartheidaren Israelen, eta zortzi denda Zisjordaniako legez kanpoko kokalekuetan, Ariel eta Ma'ale Adumim barne. Yenot Bitan dendek 2022an jada eskura zituzten Carrefour markako produktuak, eta, geroago, Carrefourreko produktu batzuk Israelen ekoizteko eta Carrefour markarekin merkaturatzeko baimena lortu zuten.

BDZren Palestinako Batzorde Nazionalak (BNC) Carrefour Taldeari boikota egiteko eskatu die mundu osoan Palestinako herri indigenaren eskubideak babesten dituzten pertsonei, harik eta:

1) Israelgo Electra Consumer Products-ekin eta Yenot Bitant filialarekin duen frankizia hitzarmena amaitu, eta

2) mundu osoan zehar dituen milaka supermerkatu eta dendetan Israelek legez kanpo dituen kokalekuetatik datozen produktuen salmenta guztiak bertan behera uzten dituen arte.

Israelek Gazan 2,3 milioi palestinarren aurka hasitako gerra genozidan —2023ko urrian hasi zen—, Carrefour Taldearen filialak —Carrefour-Israel— genozidioan parte hartzen ari diren soldadu israeldarrak babestu ditu, pakete pertsonalak oparituta.

Erantzukizun orotatik aldentzen saiatu da Carrefour. Hala ere, enpresa Israelen krimenen konplize da, bere enpresa jarduerak zuzenean edo zeharka apartheidari, genozidioari eta giza eskubideen urraketei laguntzen dien heinean. Genozidio arriskua ezaguna izan arren, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren 2024ko urtarrileko konklusioen arabera, eta Auzitegi beraren 2024ko uztaileko epaiaren

arabera legez kanpoko okupazioak eta apartheida indarrean dituen Estatu batekin negozioak egiten jarraitzeak, Carrefour Taldea krimen horien konplize bihurtzen du.

Gainera, Carrefour Israelek finantza galera handiak izan ditu hasieratik, eta horrek zalantza handiak sortzen ditu bere operazioen bideragarritasunaren eta negozio ereduaren inguruan. Israelgo ekonomiaren gainbehera etengabea dela eta, Carrefourrek Israelen egiten duen inbertsioa ez da etikoa eta ilegala soilik; zuhurtziarik gabekoa ere bada finantza ikuspegitik.

Enpresaren finantza arazoek ohartarazpen gogorra egiten diete apartheid israeldarrean inbertitzeko asmoa dutenei.

Carrefourrek apartheid israeldarrarekin eta legez kanpoko okupazio militarrarekin duen konplizitateari amaiera emateko neurri zehatzak hartu eta herri palestinarraren eskubideak errespetatu arte, enpresaren aurkako kanpainak hazten eta indartzen jarraituko du.

Mundu osoan, pertsona ugari ari dira palestinarren askapen borrokarekin bat egiten, eta ez dute atsedenik hartuko Israelen krimenetan eta giza eskubideen urraketa larrietan estatu, enpresa eta erakundeen konplizitatea amaitu arte. Areagotu dezagun #BoycottCarrefour kanpaina, Israelen kolonialismo, apartheid eta orain genozidio erregimenarekin duen konplizitate lotsagarria amaitu arte!

## ZERGATIK?

Palestinako herriaren gainean Israelek duen kolonialismo eta apartheid erregimena mantendu ahal izateko, ezinbestekoa du gobernu, enpresa eta instituzioen laguntza; ordea, erakunde horiek guztiek kontuak eman behar dituzte, jada hamarkada batzuk dituen erregimen kriminal, bidegabe eta zapaltzailea iraunarazten emandako laguntzagatik. Beraz, Israelgo erregimen genozidarekin konplizitate oro amaitzea inoiz baino premiazkoagoa da.

Frantziako Carrefour banaketa multinazionalak 3.400 saltoki baino gehiago ditu mundu osoan, eta Israelgo erregimenak palestinar herriaren aurka egindako gerra krimenetan parte hartzen du, nola diren kolonialismoa, apartheida eta okupazio militarra.

Carrefour Taldeak Electra Consumer products-ekin eta Yenot Bitan filial txikizkariarekin osatutako elkarteak zuzenki lotzen du enpresa hura kokaguneei ematen dieten zerbitzuekin eta mantenuekin; halaber, estuki lotuta dago enpresek helburu komertzialekin arpilatutako baliabide natural palestinarrak legez kanpo erabiltzearekin.

Israelen kokalekuak legez kanpo bereganatutako lurrak dira, eta Israelen legez kanpoko okupazio azpiegituraren zati integrala osatzen dute. Bereganatze horiek familia palestinar indigenak euren lurretatik kanporatzen dituzte, pertsona palestinarrei baliabide naturalak kentzen dizkiete eta autodeterminazio eskubidea ukatzen diete, Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2024ko uztailean adierazi bezala.

Nahiz eta Carrefourrek bere akziodunei ziurtatu zien Palestinako lurralde okupatuan (PLO) dendarik ez zuela ireki, frogek erakusten dute Carrefourrek gutxienez sukurtsal bat duela zabalik Modi'in-Maccabim-Re'ut kokagunean, partzialki lurralde palestinar okupatuan dagoena Nazio Batuen eta Europar Batasunaren arabera.

## ISRAELEN KOKALEKUAK LEGEZ KANPOKO LUR PILAKETAK DIRA

2022ko abuztuan, Electra Retail Ltd., Electra Consumer Products-en filiala, Israelgo Hapoalim bankuarekin elkartu zen, bankukoak ez diren kreditu txarteletan oinarritutako bezero klub bat osatzeko lankidetza batean, eta, horretarako, Israel Credit Cards Ltd-en (CAL) laguntza dute. Zerbitzu berriak Electra Consumer Products taldearen banaketa kateetako bezeroei egingo die mesede, eta bezero klubaren nukleoan Carrefour sartuko da.

Hapoalim bankua NBEren datu basean agertzen da, Israelen legez kanpoko kokalekuen proiektuaren konplize diren beste banku israeldarren artean. Who Profitsen arabera, Hapoalim bankua buru-belarri aritu da Israelen legez kanpoko kokalekuetan eraikuntza eta azpiegitura proiektuak finantzatzen.

Elkarlan honek talde frantziarraren konplizitatea sakontzen du: apartheid-a ahalbidetzen du eta israeldarrek Palestinako eta Siriako lur lapurtuetan dituzten kokalekuei onura ateratzen die, zeina gerra krimena baita nazioarteko zuzenbidearen arabera.

Carrefour Israelek ustiapen galera handiak izan ditu 2023ko lehen hiruhilekoan, eta, ondorioz, 148 milioi NIS lortu behar izan ditu Israelgo lau banku handiren maileguetan, sukurtsalak birmoldatzeko planari laguntzeko.

## ELECTRA CONSUMER PRODUCTS ETA YENOT BITAN

Electra Consumer Products eta bere filial eta marka ezberdinak, Yenot Bitan (Israelgo supermerkatu kate bat) barne, Israelen legez kanpoko kokalekuak sustatzen dituzten proiektu batzuetan zuzenean sartuta daude. Hala, Israelen legez kanpoko kokalekuen proiektuan parte hartzen ari diren enpresen NBEko datu basean agertzen da Electra Group .

## GENOZIDIOA

Israelek Gazako Zerrenda okupatu eta setiatuan palestinarren aurkako eraso genozida burutzen zuen bitartean, eta gosetea gerra arma gisa erabiltzen zuen bitartean, genozidioan parte hartzen ari ziren soldadu israeldarrak babestu zituen Carrefour-Israelek, pakete pertsonalak oparituz. Jarduera horrek konplize zuzena bihurtu du Carrefour, Israelek Gazan egindako gerra eta gizateriaren aurkako krimenena eta genozidioarena.

Jerusalemgo Ramat Beit Hakingururen Carrefour supermerkatuak, 2023ko urrian, soldaduentzat dirua bilduko zuela iragarri zuen, eta kartel bat jarri zuen, "gure soldadu ausartentzako" dohaintzak eskatzeko; ordea, soldadu horiek aktiboki parte hartzen ari ziren Gazako genozidioan.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2024ko urtarrilean ondorioztatu zuen Israel Gazako herri palestinarraren aurka balizko genozidioa egiten ari dela; ondorioz, korporazioek legezko betebehar ukaezina dute Israelen ekintza genozidekin konplizitatea amaitzeko eta genozidioa ahal duten neurrian prebenitzeko.

## ISRAELGO ESKUIN MUTURREKO GOBERNUARI BABESA

2023ko maiatzaren 9an, Israelgo gobernuak Gazaren aurkako beste eraso bat egitea erabaki zuen egun berean, 33 palestinar (adingabeak barne) hilez, Carrefour taldeak 50 bulego ireki zituen Israelgo apartheidaren bezeroak artatzeko. Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak eta Ekonomia ministroak Carrefourren egoitzetako bat bisitatu zuten eta eskerrak eman zizkioten enpresari ekimen honengatik.

Nir Barkat Israelgo ekonomia ministroak goraipatu egin du Carrefourrek inportazio kanal paraleloak sortzeko eta oinarrizko produktuen kostua merkatzeko duen gaitasuna.

Gobernu genozida honekin lan eginda, Carrefour zuzenean ari da babesten Israelgo gobernu ultraeskuindar, arrazista eta fundamentalistena. Krisi ekonomikotik salbatzen laguntzen dio, eta, bitartean, gobernu horrek genozidioa, garbiketa etnikoa, etxebizitzen eraispenak, azpiegituraren suntsiketa, oinarrizko eskubideen ukazioa eta palestinar indigenen aurkako atxiloketa masiboak areagotzen ditu.

## CARREFOUR ISRAEL

## ISRAELGO GOI TEKNOLOGIA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETETAN NAHASTUTA

2023ko Don't Buy Into Occupation txostenaren arabera, Carrefour Israelek elkarte bat sortu zuen urte horretako maiatzean, besteak beste, adimen artifizialaren eta zibersegurtasunaren arloetan goi teknologiako sei enpresa emergente israeldarrekin.

Israelgo teknologia enpresa horien artean dago Juganu argiztapen eta segurtasun azpiegitura enpresa, zeinak jarduten baitu Har Homa eta Beitar Illit legez kanpoko kokalekuetan.

Gainera, start-up horietako bat AI21 Labs da; enpresa horretako buruak "Israelgo Defentsa Indarren eliteko unitate teknologikoko beteranoak" gisa aurkezten dira. AI21 Labs-eko zuzendari nagusia Israelgo Gobernuko Adimen Artifizialeko eta Teknologia Aurreratuetako Azpibatzordea (ordaindu gabeko lanpostu bat) zuzentzeko proposatu zuten 2023ko ekainean.

## HAPOALIM BANKUA

2022ko abuztuan, Electra Retail Ltd., Electra Consumer Products-en filiala, Israelgo Hapoalim bankuarekin elkartu zen, bankukoak ez diren kreditu txarteletan oinarritutako bezero klub bat osatzeko lankidetza batean, eta, horretarako, Israel Credit Cards Ltd-en (CAL) laguntza dute. Zerbitzu berriak Electra Consumer Products taldearen banaketa kateetako bezeroei egingo die mesede, eta bezero klubaren nukleoan Carrefour sartuko da.

Hapoalim bankua NBEren datu basean agertzen da, Israelen legez kanpoko kokalekuen proiektuaren konplize diren beste banku israeldarren artean. Who Profitsen arabera, Hapoalim bankua buru-belarri aritu da Israelen legez kanpoko kokalekuetan eraikuntza eta azpiegitura proiektuak finantzatzen.

Elkarlan honek talde frantziarraren konplizitatea sakontzen du, apartheid-a ahalbidetu eta israeldarrek Palestinako eta Siriako lur lapurtuetan dituzten kokaguneei onura ateratzen baitie, gerra krimena dena nazioarteko zuzenbidearen arabera.

Carrefour Israelek ustiapen galera handiak izan ditu 2023ko lehen hiruhilekoan, eta, ondorioz, 148 milioi NIS lortu behar izan ditu Israelgo lau banku handiren maileguetan, sukurtsalak birmoldatzeko planari laguntzeko.

# ISRAEL HILTZAILE

Carrefour LAGUNTZAILE

**Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak**

KANPAINA 3DZ EUSKAL HERRIA

# KONPLIZITATERIK EZ, ISRAELI BOIKOTA!

KANPAINA BDZ! EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIKO
BDZ NODOA
ISRAELI BOIKOT,
DESINBERTSIOAK
ETA ZIGORRAK

Informazio gehiago: labur.eus/bdz